

TXIKIAK HANDI

**Joanes, Aritz, Ekhi,
Hodei, Oier L eta Udane**


TXIKIAK HANDI PROIEKTUA

Txikiak Handi munduko hizkuntza gutxituen handitasuna aldarrikatzeko eta haien arteko zubiak eraikitzeko sortutako Nafarroa Oinezen proiektu iraunkorra da.



ELEANIZTASUNA ETA HIZKUNTZA KOPURUA

Proiektu honetan ikasi dugu munduan 7.000 hizkuntza inguru daudela eta hiztunen arabera 0tik 10erako taula batean Euskara bederatzigarren postuan dagoela.



HIZTUN GEHIEN DITUZTEN HIZKUNTZAK(ETNOLOGUE WEBGUNEA)

Hauek dira munduan gehien hitz egiten diren 5 hizkuntzak

Txinera: 1,2 mila milioi hiztun inguru ditu

Gaztelera: 400 milioi hiztun ditu

Ingelesa: 360 milioi hiztun inguru

Arabiera: 250 milioi hiztun

Portugesesa: 215 milioi hiztun ditu



HIZKUNTZEN KOKAPENA ETA BIZITASUNA(CALVET BAROMETROA)

Calvet barometroak 500.000 hiztun baino gehiago dituzten hizkuntzak sailkatu zituen 11 irizpideren arabera. Honela, 563 hizkuntza sailkatu ziren, eta horien artean, euskara, 51. postuan dago, besteak beste, wikipedia eta interneten presentzia handia duelako. Adibidez,wikipedian, 160 mila artikulutik gora ditu euskarak.



44	albanais tosk ▶	3.908
45	marathi ▶	3.831
46	occitan ▶	3.829
47	lituanien ▶	3.817
48	ukrainien ▶	3.793
49	galicien ▶	3.773
50	macédonien ▶	3.773
51	basque ▶	3.747
52	leton ▶	3.733
53	tilougou ▶	3.718
54	gallois ▶	3.721
55	suisse allemand ▶	3.714
56	tibétain, central ▶	3.675
57	haoussa ▶	3.665
58	biélorusse ▶	3.655
59	malavaïem ▶	3.645

HIZKUNTZEN OSASUNA (UNESCO ATLASA)


Uneskoren Atlasak, berriz, hizkuntzen osasuna neurtzen du. Honela, arriskuan dauden hizkuntzak ondoko eskalan kokatzen ditu. Eskala horretan, euskara egoera zaugarrian dagoela dio. Katalana, berriz, ez du eskalan sartzen arriskuan ez dagoelako.

Euskara: Zaugarria

Katalana: Arriskurik ez du

Bizitasun-maila	Hizkuntzen belaunez belauneko transmisioa
Arriskurik gabe	Belaunaldi guztiek hitz egiten dute hizkuntza eta belaunez belauneko transmisioak ez du etenik. Ez da atlas-ean sartzen.
Zaugarria	Haur gehienek hitz egiten dute hizkuntza, baina erabilera zenbait eremutara mugatuta egon daiteke (Familia giroa, adibidez).
Arriskuan	Haurrek jada ez dute ikasten ama-hizkuntza gisa.
Arrisku nabarmena	Aiton-amonak eta belaunaldi zaharrenetako partaideek bakarrik hitz egiten dute hizkuntza. Gurasoen belaunaldietakoek, ulertu badezakete ere, ez dute beraien artean erabiltzen, ezta seme-alabekin ere.
Arrisku larria	Hiztun bakarrik, aiton-amonak eta belaunaldi zaharrenetako partaideak dira, baina gutzitan eta oso modu partzialean darabilte hizkuntza.
Desagertua	Ez da hiztunik geratzen. Atlasak, 1950. urteik aurrera desagertutako hizkuntzen erreferentzia dakar.

GURE HERRIAN EGINDAKO INKESTAK



ONDORIOAK

Txikiak Handi proiektua bukatu ondoren ondorio hauetara iritsi gara: Euskara, tamainari dagokionez ez da uste genuen bezain txikia; osasunari dagokionez, ordea, Uneskoren arabera arriskuan dago, izan ere, jende gutxik hitz egiten du. edo ez du eremu guztietan erabiltzen. Beraz, euskara indartu egin behar dugu, adibidez, gurasoek ama-hizkuntza bere seme-alabei irakatsi behar diete eta euskarari eremu gehiago eman behar.

